


I+Gko gastua % 4,1 hazi da, eta 1.481,4 milioi eurora iritsi da Euskal AEn, BPGren % 1,86 2019an

la 20.000 pertsona egon dira dedikazio osoan I+Gn 2019an, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago

Eustaten datuen arabera, barneko I+Gko gastua (Ikerketa eta Garapen Teknologikoa) 1.481,4 milioi eurokoa izan zen Euskal AEn 2019an. Zifra horrek aurreko urtean baino 58 milioi euro gehiago hartzen ditu, % 4,1eko igoera, eta laugarren urtez jarraian finkatu da 2016an hasitako hazkunde-etapa gastuan, zeinak dakarren 2019an beste maximo bat lortu izana gastuaren serie historikoan.

Barneko I+Gk 19.619 pertsona enplegatu zituen Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB) 2019an, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago. Ikertzaileen kopurua (13.520 pertsona Dedikazio Osoko Baliokidetzan, DOB) % 2,7 hazi zen. Gastuarekin gertatzen den bezala, bai I+Gn lan egiten duten langile guztien kopurua bai ikertzaileena maximo historikoetara iritsi dira 2019an.

Barneko I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

BPGri dagokionez, Euskal AEko barneko I+Gko gastua % 1,86koa izan da 2019an, 2018ko % 1,85ekoa baino ehunen bat handiagoa. Europar Batasunarekiko (EB-28) azken datu konparatiboak 2018koak dira, eta EB-28an BPGren % 2,11 zen urte horretan; Espainian, berriz, % 1,24.

Lurralde-xehetasunera joanda, egiaztatu da ezen Erkidegoko barneko I+Gko gastu osoaren % 46,2 2019an Bizkaian egin zela, % 43,3 Gipuzkoan eta % 10,5 Araban. Gastu hori Gipuzkoako BPGren % 2,40 da, Bizkaikoaren % 1,71 eta Arabakoaren % 1,23.

Euskal AEn egindako barneko I+Gko gastuaren % 76,3 enpresen sektoreak egikaritu zuen

Barneko I+Gko gastua egikaritzeko sektoreari dagokionez, gehienek, % 76,3k (1.129,6 milioi euro), Enpresek egin zuten; % 17,1 (253,8 milioi) Goi Mailako Irakaskuntzak egin zuen, eta gainerako % 6,6a (98,0 milioi) Administrazioaren mendeko hainbat Erakundek. Barneko I+Gko gastua egikaritzeko banaketa sektorial hori nahiko egonkor mantendu da azken urteotan.

Aurreko urtearen aldean, hiru sektoreek (Enpresak, Administrazio Publikoa eta Goi Mailako Irakaskuntza) barneko I+Gko gastua % 4,6, % 1,6 eta % 2,7 hazi dute, hurrenez hurren.

Euskal AEn barneko I+Gko gastua, egikaritze-sektoreen eta fondoek jatorriaren arabera (mila euro). 2019

	Guztira	Administrazio Publikoa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	Irabaziasmorik gabeko erakunde pribatuak	Atzeritik etorriak
Guztira	1.481.404	500.810	45.626	798.725	7.817	128.427
Enpresak eta IAGEP	1.129.601	236.440	2592	780.864	2600	107.104
Administrazio Publikoa	98.002	87.888	120	4.946	2.390	2.657
Goimailako irakaskuntza	253.801	176.482	42.913	12.914	2.826	18.665

IAGEP = irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Barneko I+Gko gastuaren finantzaketaren ikuspegitik, finantzaketa publikoa da hazkunderik handiena duena, aurreko urtean baino % 6,3 gehiago, eta emandako 500,8 milioi euroak I+Gko gastu osoaren % 33,8 dira dagoeneko. Sektore horretan, Administrazio Autonomoaren ekarpena da nagusi (408,0 milioi), aurreko urtearen aldean % 8,2 igo baita eta administrazio publikoak 2019an finantzatutako guztizkoaren % 81,5 izan baita –2010ean % 62,9 izan zen–. Bestalde, administrazio zentralak (69,1 milioi) -% 0,3 jaitsi du bere finantzaketa aurtan, eta finantzaturiko guztizkoaren % 13,8ra mugatu du bere partaidetza. Azkenik, aldundiek eta toki-administrazioek (23,7 milioi) % 4,7ko partaidetza izan zuten, eta haien ekarpena ere jaitsi egin zen, -% 3,4, aurreko urtearen aldean.

Enpresek 799 milioi euro bideratu zituzten ikerketara, 2018an baino % 3,5 gehiago, hau da, finantzaketa osoaren % 53,9, eta lehen finantzaketa-iturria izaten jarraitu zuten.

Gainerako finantzaketa atzeritik dator, 128,4 milioi eurekin, eta zifra hori aurreko urtekoaren antzekoa da (+% 0,5); goi-mailako irakaskuntzatik, 45,6 milioi (-% 0,3), eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuetatik, 7,8 milioi, % 15,1eko hazkunderekin.

Dedikazio osoko **enplegatuak** 19.619 izan ziren, eta egikaritze-sektorearen arabera honako hauek izan ziren: Enpresetan, 13.916 pertsona (guztien % 70,9); Goi Mailako Irakaskuntzan, 4.400 (% 22,4); eta Administrazio Publikoan, 1.303 (% 6,7). Nabarmentzekoa da ikertzaileen hazkundera, 13.520 pertsona guztira, % 2,7 igo dena; langile guztien kopuruak, berriz, % 1,8 egin du gora.

2019an I+Gn aritzen ziren langileen % 36,6 emakumeak ziren, 2010ean baino ehuneko 3,2 puntu gehiago

Dedikazio osoko I+Gko langileen % 36,6 emakumeak ziren, aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gehiago langile-kopuruan, baina 2010. urtearekiko hazkundera ehuneko 3,2 puntukoa da, eta are 4,9 puntukoa 2005. urtearekiko.

I+Gko egikaritze-sektorea kontuan hartuta, Enpresen sektorean eta Goi Mailako Irakaskuntzan dago emakumeen presentzia kuantitatiboki nabarmenena: 4.316 eta 2.152 emakume, hurrenez hurren, eta 715 emakume, berriz, Administrazio Publikoaren sektorean. Hala ere, termino erlatiboetan, Administrazio Publikoan emakumeak % 54,9 dira, Goi Mailako Irakaskuntzan % 48,9 eta Enpresen sektorean % 31,0.

Gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2009-2019

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
I+G Gastuak											
Guztira (Milioi euro)	1.281	1.360	1.366	1.373	1.317	1.290	1.273	1.291	1.363	1.423	1.481
Urteko gehikuntza (%)	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1
BPGaren gaineko %	1,97	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86(p)
Pertsonala (DOB)*											
Guztira	16.690	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577	19.274	19.619
Urteko gehikuntza (%)	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8
Lanpostu baliokideen gainean (‰)	17,7	18,8	19,3	20,9	21,1	21,3	20,3	19,5	19,8	20,1	20,1
Ikertzaileak (DOB)*											
Guztira (Milioi euro)	10.386	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608	13.165	13.520
Urteko gehikuntza (%)	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7
Lanpostu baliokideen gainean (‰)	11,0	11,9	12,2	13,2	13,8	13,8	13,4	13,0	13,4	13,7	13,9

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzatza

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Oharra: Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten lagundu duten enpresa eta erakunde guztiei egindako ahaleginagatik ezohiko baldintza hauetan. Haien laguntzarik gabe, ez litzateke posible izan.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62